



**IKASTURTE
AMAIERAKO
AGIRI AKADEMIKOAK
BATXILERGOA**

2016 / 2017 IKASTURTEA

2017ko maiatzaren 15a

**Ikastetxeko zuzendari jauna/andrea:**

2016-2017 ikasturtearen amaierako ikasketa-agirien bilketa ordenatuari ekiteko, zure ikastetxeari dagokion ikuskariak jakinaraziko dizu bete beharreko egutegia. Egutegi hori dela-eta, eragozpenen bat bazenu, arren jar zaitez harremanetan ikuskariarekin, lehenbailehen konpontzeko.

GOGORARAZTEN DIZUGU AKTA-EREDU GUZTIAK ETA IKASKETA MAILA GUZTIETAN NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO BESTELAKO IKASKETA AGIRIAK “NOTAK ETA HUTSEGITEAK” IZENENKO APLIKAZIOAK EMATEN DITUENAK DIRELA . APLIKAZIO HORI HEZKUNTZA SAILAREN WEB ORRIAN DAGO ETA IKASTETXEEK BERTARA IGO BEHAR DITUZTE NOTAK. AGINDUA, 2016ko irailaren 23koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2016-2017 ikasturteari dagokion ikastetxeei buruzko informazioa eredu bateratuaren bidez biltzeko dena (2016-10-18 EHAA)

ESKATUTAKO IKASKETA AGIRIAK BETE BAINO LEHEN, KOMENI DA EBALUAZIOARI BURUZ INDARREAN DAGOEN ARAUDIAN EZARRITAKOA IRAKURTzea, eta funtsean honako honetan oinarritzen dena:

BATXILERGOA:

- o 1105/2014 Errege Dekretua, abenduaren 26koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko oinarrizko curriculumak ezartzeko (2015/01/03ko EHAA).
- o 127/2016 DEKRETUA, irailaren 6koa, Batxilergoko curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko.
- o 2010eko uztailaren 26ko Agindua, Batxilergoaren antolamendua eta ebaluazio-prozesua arautzen dituenak. (2010/09/09ko EHAA). 127/2016 DEKRETUAK ezartzen duena oztopatzen ez duen neurrian.
- o 2010eko uztailaren 26ko Agindua, Batxilergoko helduen irakaskuntza arautzen duena. (2010/09/10eko EHAA). 127/2016 DEKRETUAK ezartzen duena oztopatzen ez duen neurrian.



0. Sarrera

A) Ohar orokorrak:

1. Talde, ikasturte edo maila guztietako eskola-agiriak betetzeko “Notak eta hutsegiteak” izeneko aplikazioa erabili beharko da. Bertan, irakasle gaituek jarri ahal izango dituzte ikastetxean ematen diren irakaskuntzei dagozkien gai, arlo, irakasgai edo moduluetako notak.

2. “Notak eta hutsegiteak” izeneko aplikazioan idatzitakoa “ikasketa-espeditentea” izeneko aplikazioan islatuko da, eta bertatik eskuratu ahal izango da ikaslearen “Ikasketa-historia”. (ZIURTAGIDI DIGITALA)

Gogorarazten da EAEn egiten diren ikastetxe-aldaketetarako ez dela beharrezkoa ikasleak bere ikasketa-historia inprimaturik aurkeztea, beste ikastetxean matrikula egitean, aurreko ikastetxeak ikaslearen espeditentean islatutako datu guztiak eskuratu ahal izango baitituzte. “Notak eta hutsegiteak” aplikazioa behar bezala betetzeko, ezinbestekoa da “Ikasketa- kudeaketa. Aurrematrikula/matrikula” aplikazioan ikasle bakoitzari buruzko datu guztiak behar bezala beteta egotea. Bestalde, datu horiek “Ordu-tegi-etaulak-EJA” aplikazio informatikoan islatuko dira talde ofizialak antolatzerakoan, ematen direnak eta emateko daudenak, ikasleak ikasgai desberdinak jasotzeko taldeetan bereizten badira.

Bi aplikazioen arteko koherentzia ziurtatzeko ikastetxeei eskuragarri jarri zaie “Matrikula eta EJAren arteko konkordantzia-zerrenda”, zeina “Moduluak-matrikula-ikaslea” aukeran inkoherentziarik ez dagoela ziurtatu arte berraztertu beharko den.

B) Aktak itxi aurreko balioztapenak:

Abiapuntu gisa hartzen da Bigarren Hezkuntzako institutu publikoetako 2016-2017 ikasturtea antolatzeko Ebazpenak dioena (1.5.1.IV.A puntua): *“Irakasleek tutoreen egoera-orrietan adierazi beharko dituzte irakasgai bakoitzeko notak eta estatistikak, eta baita ikasketaburuak eskatutako bestelako edozein agiri ere, ebaluazio-bilera egin baino 24 ordu lehenago gutxienez”*. Jarduera horrek ziurtatzen du ikastetxe guztietan ikasleen ebaluazio-prozesua berme handienekin burutuko dela. Beraz, ikastetxearen titulartasuna dena delakoa izanda ere, jarduera horrekin jarraitzea gomendatzen da. Behin hori zehaztuta:

- Taldekako historia-**zirriborroak** inprima daitezke. Hori egiteko **“Ikasketa-espeditentea”** aplikazioko 'Ikasketa-espeditenteak – Zerrendak – Batxilergoa – Historia balioztapenak' menuetik egiten da.



Gestión Académica: Expediente

Bertan, ordura arteko informazioa biltzen duen zirriborroa sortuko da, Excel formatukoa, ikasleen zerrenda eta ikasleko aukera bat izango duena (NANaren erreferentziarekin).

Baliabide hori erabiltzea gomendatzen da ikasleen ebaluazio-prozesuan zehar eta honako une hauetan:

- o Notak sartu aurretik: Garrantzitsua da ikasketa-historia berrikustea aurtengo ikasturteko notak kargatu baino lehen, aurreko akatsik balego antzemateko. Baliagarria da ikastetxeak aurreko ikasturteetan egindako akatsen konponketa egiaztatzeko, (adibidez, ikasle batek 2. mailako ikasgai bat gaindituta dauka, baina ez da agertzen 1. mailakoa, hurrengorako giltza dena, gainditu duela).
- o Aurtengo ikasturteko notak kargatu ondoren, eta akten behin-behineko edo behin betiko ITXIERAREN AURRETIK: Sortu den historia-zirriborroa, aurreko bera izango da aurtengo ikasturteko notak gehituta. Akatsen bat badago, aktak berriro ireki gabe zuzen daiteke, ez baitira oraindik itxi..
- o Aktan behin betiko ITXI OSTEAN: Behin betiko datuak biltzen dituen “Balio akademikorik gabeko dokumentua” sortuko da. Fase horretan, kalifikazioetan akatsen bat antzematen bada, **eginbide bidez zuzenduko da “Notak eta hutsegiteak” aplikazioan**. Eginbide hori automatikoki espedientera pasatuko da, eta bertan ikusi ahal izango da. Hori guztia burutu ondoren, gomendagarria da berriro baliozkotze-txostena eskuratzea, eginbidea behar bezala kargatu dela egiaztatzeko.

Diligentzia/eginbideak bakarrik nota baten aldaketaren inguruan egingo dira; gainontzeko diligenziak ikaslearen espedientean egin beharko dira

Edozelan ere, batxilergoko 2. mailako ohiko ebaluazioko aktak beteta eta itxita egon beharko dira maiatzaren 29a baino lehen

C) Egiaztatgiri digitala:

“Egiaztatgiri digitalak” izeneko berariazko aplikazioaren bidez eskuratuko da. Bi ziurtagiri mota daude:

- o Amaierako egiaztatgiri



Ikastetxeak, behar bezain bestetan, eskatu ahal izango du amaierako egiaztagiri digitala, oro har, aurtengo ikasturtea (2016-2017) amaitzen duten ikasle guztiek izango dute.

Aplikazioaren bidez, ikastetxeak (automatikoki) titulurako proposatuta eta, zenbait arrazoi direla medio, egin gabe dauden ikasle guztien ziurtagiriak eskuratuko ditu; hona hemen arrazoiak:

- Lehenago sortu ez direlako.
- Sortu ondoren, eginbide bat egin delako (ikus B atala)

Aplikazioan elkarrizketa-koadro bat ireki behar da; bertan “Mota” agertuko da, eta zabaldu ondoren, “Amaiera” aukeratu behar da. Egiaztagirian jaulkipen-data agertuko da, ikastetxeak egiaztagiria egiten duen eguneko data, alegia.

Ohiko ebaluazioaren ondoren, ikastetxeak AMAIERAKO egiaztagiriak eskatu behar ditu amaitu dutenentzat, eta bigarren jaulkipen bat egingo du ezohiko ebaluazioaren ondoren.

o Egiaztagiri partzialak

Eskatzen duen ikasleari egingo zaio (ikasketak utzi edo ikastetxez edo autonomia-erkidegoz aldatu delako. Gure erkidego barruko ikastetxe batera aldatzen bada, ikastetxe berriak, ikaslea matrikulatu ostean, bere datuak eskura ditu automatikoki), eta beti 2015-2016 ikasturtetik aurrera.

Aplikazioan elkarrizketa-koadro bat ireki behar da; bertan “Mota” agertuko da, eta zabaldu ondoren, “Partziala” aukeratu behar da. Ikaslearen identifikatzaile pertsonalaren edo NANaren bidez eskatzen da. Matrikula-aplikazioan ikasleen zerrenda eta haien identifikatzailea eskura daiteke, konkordantzia-zerrendan ere agertzen da; ikaslearen identifikatzailea eta EAEko espediente zenbakia berdinak dira. Egiaztagirian jaulkipen-data agertuko da, ikastetxeak egiaztagiria egiten duen eguneko data, alegia.

Egiaztagiri digitala Eusko Jaurlaritzak berak, ez ikastetxe jakin batek, balioztatzen duen dokumentu baten “kopia kautoa” da; horregatik EAEko edozein ikastetxek eman ahal izango dio dokumentu hori eskatzen dion ikasleari, bertan matrikulatuta egon ala ez.

Egiaztagiria era batekoa edo bestekoa izan, akatsen bat antzematen bada, egiaztagirian bertan eta zehazten denaren arabera, izapide bidez zuzendu ahal izango da. Horren ondoren, aurreko egiaztagiria baliogabetzen duen beste egiaztagiri digital bat sortuko da (izapidea jasotzen duena).



I.- IKUSKARITZAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRI AKADEMIKOAK (BATXILERGOKO 1. ETA 2. MAILA)

Dokumentu akademiko-administratibok da Hezkuntza.net web-orriko “Nota eta hutsegiteak” aplikazioaren bidez eskura daitekeena.

APLIKAZIOAREN BIDEZ AMAIERAKO EBALUAZIO AKTA BAT ETA APARTEKO EBALUAZIORAKO BESTE BAT ESKURA DAITEZKE.

Notak edo kalifikazioak “Notak eta hutsegiteak” aplikazioan sartuko dira, eta handik automatikoki “Ikasketa-espeditera” irauliko dira, non segidan azaltzen den moduan kontsultatu ahal izango diren.

- **Ebaluazio akta bana** ikasturteko, ikasle-taldeko eta batxilergo-motako.
 - o Ikastetxe publikoak.- Bi ale: bat ikastetxearentzat eta bestea ikuskaritzarentzat.
 - o Ikastetxe pribatuak.- Hiru ale: Ikastetxe pribatuak ikastetxe publiko bati atxiki behar zaizkio. Ikastetxe publiko horrek, hain zuzen, atxikita duen ikastetxe pribatuaren aktak egiaztatu beharko ditu, eta akten kopia batekin geratuko da; beste bi aleetatik bat ikastetxe pribatuarentzat eta bestea ikuskaritzarentzat izango dira.
- **Ikasle libre, gauezko ikasketetako eta urrutikoen ebaluazio-aktak.**
 - o Ikastetxe publikoak.- Bi ale: bat ikastetxearentzat eta bestea ikuskaritzarentzat..
- **Batxilergoko titulua emateko proposamena. 2017**
 - W21- unibertsitateaz kanpoko tituluak kudeatzeko aplikazioak (aurrerantzean W21) hasieratik aurreikusten zuen **Notak eta Faltak kudeatzeko aplikazioarekiko lotura**, azken honek erabiltzen duen informazioa zurgatzeko helburuz.
 - Tituluen kudeaketaren inguruan egin beharreko lanak ez bikoizteko, hezkuntza-administrazio honek funtzionalitate berri bat ezartzeari ekingo dio. Ikastetxe kudeatzaileentzat prest egongo dena datorren **2017ko ekainaren 1etik aurrera**.
 - Data horretatik aurrera, baldin eta Notak eta Faltak aplikazioko aktak itxita badaude, **jatorrizko tituluen aurre-eskaerak eskuz sortzea ez da izango aukera baarra, eta automatikoki sortzea ere aukeratu ahal izango da**. Horretarako W21eko Zerbitzu-prozesuak atalan eskura egongo da funtzionalitate berria.
 - Automatikoki ezingo dira sortu ondorengo titulu hauek:



- Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasketak gainditu dutenentzat lortutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako tituluak.
- Batxilergoetako tronkalak gainditu eta Musika eta dantzako ikasketa profesionalak edo Lanbide Heziketakoak gainditu dituztenentzat Batxilergo titulua.
- Tituluetan agertuko diren datuetaz ari gara. Beraz, hain delikatua den zurgatze prozesuko datu eta kalifikazioen fideltasuna, aurretik Notak eta Faltak kudeatzeko aplikazioan sartutako informazioaren zehaztasunaren arabera egongo da.
- Edonola ere, **orain arteko moduan datuak eskuz sartzea posible izango da** "eskaeren kudeaketaren" bidez.
- Eskaerak automatikoki sortze prozesu berriak datuak sartzeko faserako bakarrik izango da, proposamenak jaulkitzeko modua eta ondorengo prozesuak beti bezala mantenuko dira.
- Ikasleren batek agiri akademikoren bat behar izango balu ekainaren 1a baino lehenago, ikastetxeak jaulki egin beharko dio W21eko funtzionalitateetatik kanpo.
- <http://www.kezkuntza.ejgv.euskadi.eus> atariko "Unibertsitateaz kanpoko tituluaren kudeaketa" atalan agertuko dabehar izango den informazioa.

2016-2017 ikasturteko eskola-emaitzak – Hezkuntza sailak automatikoki jasoko ditu "Notak eta hutsegiteak" aplikaziotik. E da beharrezkoa izango ikastetxeak beste inolako daturik sartzea ez eta ikuskaritzan paperean aurkeztea.



II.- IKASTETXEAN GORDE BEHARREKO AGIRI AKADEMIKOAK

IKASLEEN IKASKETA ESPEDIENTE ELEKTRONIKOA DAGOKION APLIKAZIO INFORMATIKOAN EGONGO DA

Ikasketa-espeditentea: Ikastetxe guztiek ireki eta bete behar dituzte ikastetxean matrikulatutako ikasle guztien ikasketa-espeditenteak.

Aktak: Ikastetxe guztiek, epemugarik gabe, gordeko dute ikasturte bakoitzeko ohiko eta aparteko deialdietako azken originala, behar bezala sinatu eta zigilatuta. Akta horiek sortuko dira erreferentziazko ikasturteko araudi aplikagarriak ezartzen dituen baldintzen arabera. Agiri horien zaintza ikastetxeko idazkariaren ardura da.

Horrez gain, ikastetxe publikoek atxikirik dituzten ikastetxe pribatuetako akten kopiak zainduko dituzte. Horren ardura ere ikastetxe publikoko idazkariarena da.



III.- IKASLEEI EMAN BEHARREKO AGIRI AKADEMIKOAK

Historia akademikoa edo, 2015-16 ikasturtetik aurrera, Egiaztagiri digitala: Ikastetxeak emango ditu. Aurtengo ikasturtean EAEn matrikulatuta dauden ikasleen kasuan, “EGIAZTAGI DIGITALAK” APLIKAZIOAN sortuko da, eta behar denean soilik inprimatuko da, ikastaldia bukatzerakoan edo lekuz aldatzegatik beste erkidego batera.

Ikastetxeek bere antolaketarako kontuan izan behar dute, zein sistema erabiltzen duen aplikazioak egiaztagiri digitalak sortzeko. Horiek ez dira eskuragarri izango aplikazioan eskaera egin eta hurrengo goizera arte.

2015-16. urtea baino lehenagoko ikasturteei dagokien Historia akademikoa: Ikasle batek aurreko ikasturteetako historia akademikoa eskatzen badu (2014-15 ikasturtera arte, bera barne) bi egoera gerta daitezke:

- o Ikasleak ikasketak amaitu zituen “Notak eta Hutsegiteak” aplikazioa martxan jarri aurretik.

Ikastetxe publikoak: ikasleak eskatuta, ikasketa-historia egingo du, horretarako oinarritzat hartuz paperezko euskarrian gordetako ikaslearen aktak edo espedientea.

Itunpeko ikastetxeak: ikastetxe publikoak, ikasleak hala eskaturik, ikasketa-historia egingo du, horretarako oinarritzat hartuz itunpeko ikastetxeko akten kopiak.

- o Ikasleak “ Notak eta Hutsegiteak” aplikazioa martxan jarri ondoren amaitu zituen ikasketak, eta 2015-2016 ikasturtea baino lehen.

Ikastetxe publikoak: espediente-aplikazioak baliozko historia akademikoa sortuko du, “Inprimatze-kontsulta” aukeraren bidez.

Itunpeko ikastetxeak: Ikastetxe pribatuak ikusi eta sortu ahal izango du balio egiaztatzailerik gabeko kopia bat. Atxikita dauden ikastetxe publikoak emango ditu, aplikazioan dagoen informazioa baliatuz (“Inprimatze-kontsulta” atala)



Ikastetxeak du aplikazioan sartzen duen informazioaren ardura. Informazioa zuzena ez balitz, espedientearen aplikazioa ez delako behar bezala zuzendu aurreko ikasturtean eta aurten egindako egiaztapenetan, historia akademikoa egin baino lehen zuzendu beharko da, zehaztu denaren arabera. Zuzenka ezinezkoa balitz, historia edo egiaztagiria eskuz egingo da ikastetxean gordetako aktetako informazio oinarritzat hartuz.

Ikastetxez aldatzeagatiko txosten pertsonala (Egiaztapena). Ikaslea matrikulatutako Ikastetxeak egingo du, zehazten den aplikazioaren bidez.



IV.- B1 ETA B2 EGIAZTAGIRIAK HIZKUNTZA TITULUEN ETA ZIURTAGIRIEN BIDEZ EGIAZTATZETIK SALBUESTEKO ZIURTAGIRIA EGIN ETA ERREGISTRATZEA

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko denak (16ko EHAA) euskaraz egiten diren ikasketa ofizialak aitortzen ditu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzen ditu, hizkuntza-maila tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuetsiz EA Eren esparruan.

Aipatutako Dekretuko 3. artikularen arabera, batxilergoko edo goi-mailako teknikariaren titulua lortu dutenek ez dituzte aurkeztu beharko Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 mailaren baliokide diren euskarako Hizkuntza-tituluak eta –ziurtagiriak.

1. Euskara-salbuespen ziurtagiriak (Batxilergoa amaitzen duten ikasleen kasuan B2) sortuko dira 'Ziurtagiri digitalak' aplikazio barruko jaurtiketa-menuan dagoen 'Salbuespen-ziurtagiria' aukeratik.
 - Jaurtiketa automatikoa: jaurtiketa automatikotzat jotzen da erabiltzaileak ez duenean ikasle baten informazio zehatzik adierazten; hau da, bakarrik derrigorrezko atalak (*) ikurrarekin adierazitakoak) baino betetzen ez direnean: Ikasturtea, Ikastetxea, Ziurtagiri mota (B1 edo B2) eta jaulkipen-data. Jaurtiketa mota honetan aplikazioak bakarrik sortuko ditu apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten ikasleen ziurtagiriak.
 - Banakako jaurtiketak: banakako jaurtiketat hartzen da, derrigorrezko atalak betetzeaz gain, ziurtagiria sortu nahi den ikaslearen ENA (Eskola Nortasun Agiria) edo NANA ere adierazten denean. Kasu horretan, bakarrik egiaztatzen da ikaslea ikastetxean matrikulatuta dagoela, baina ez da egiaztatzen apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituen.
2. Bi aukeretan, aplikazioak egiaztatu egiten du ziurtagiria dagoeneko aurretik ez dela sortu. **Euskara-salbuespen ziurtagiriak sortzeko lehenesten den era jaurtiketa automatikoa da**, jaurtiketa horrek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua bete egiten dela ziurtatzeko programa-egiaztapena egiten baitu. Banakako jaurtiketetan, programa-egiaztapen hori egiten ez denez, erabiltzaileak berak aurretiaz egiaztatu behar izan du ikasleak betetzen duela Dekretuak dioena.

Ikastetxe batek bere ikasleen euskara-salbuespen ziurtagiriak sortzea eskatzen badu, eta aplikazioarenak ez diren arrazoiengatik (adibidez, ondoren zuzenduko duen akatsen bat datuetan) ziurtagiri batzuk sortzen ez badira, ziurtagiri horiek sortzeko, EZ luke banakako jaurtiketara jo behar. Horrelakoetan, akatsak konpondu eta gero, berriro jaurtiketa automatikoa egin beharko litzateke. Jaurtiketa horrek, oraindik jaulki ez diren ziurtagiriak bakarrik sortuko lituzke, eta horrela Dekretuak ezartzen duena betetzen dela bermatzen da. Aurretik sortu diren ziurtagiriak ez dira berriro sortzen, eta horregatik ez dago inongo arazorik jaurtiketa automatikoa behar beste aldiz eskatzeko.



Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 15a.

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'J. Romero Escobedo', written in a cursive style.

Jose Antonio Romero Escobedo
IKUSKATZAILE OROKORRA



I ERANSKINA

INFORMAZIO OSAGARRIA

1.- MATRIKULAZIOA

1.- Modalitateko irakasgairen baten talderik sortzen ez bada, gutxieneko ikasle kopurua lortu ez delako, irakasgai hori egin nahi dutenek egin ahal izango dute urrutiko hezkuntza aukeran. Aukera hori bakarrik erabil daiteke, titulua lortzeko beharrezko diren hautazko irakasgaietako baterako.

2.- Batxilergoan matrikulatuta dauden eta aldi berean Musika eta Dantzako irakaskuntza profesionalak egiten diharduten ikasleek, egin behar dituzten berariazko bi irakasgai baliozkotu dezakete aipatutako ikasketetan gaindituta dituzten bi irakasgaiengatik. Horretarako lehen mailako bi irakasgaitan matrikulatu behar dira: Anatomia aplikatua, Hizkuntza eta Musika-Praktika eta Musika-analisia I-ren artean. Bigarren mailan Musikaren eta Dantzaren Historia eta Musika-analisia II-an matrikulatuko dira. Ikasleak batxilergoa egiten diharduten ikastetxeetako zuzendaritzek ikasle hauek aipatutako irakasgaietan matrikulatuko dituzte, nahiz eta irakasgai horietako inpartizio-talderik egon ez; ondoren, irakasgai horiek baliozkotuko dituzte MATRIKULAKO APLIKAZIOAN BERTAN, beti ere, ikasleak Musika eta Dantzako irakaskuntza Profesionaleko dagozkion irakasgaiak gaindituta baditu, II ERANSKINA-ko tauletan agertzen den modura.

2. EBALUAZIOA

1.– Ikaskuntzaren ebaluazioa etengabekoa izango da, arlo desberdinen arabera bereizita egongo da eta irakasleek, curriculumaren elementu desberdinak, ikasle bakoitzaren ikaskuntza-prozesuaren bilakaera arlo guztietan eta, Batxilergoaren helburuei begira, ikasturtean zehar izan dituzten heldutasuna eta errendimendu akademikoa kontuan hartuta, egingo dute.

2.– Irakasle-taldeak, irakasle tutorearen koordinaziopean eta ikasle bakoitzaren irakasleek osatuak, ikasleek arlo guztietan duten bilakaera eta, Batxilergoaren helburuei begira, haien heldutasun akademikoa baloratuko dituzte. Halaber, Batxilergoaren bukaeran, geroagoko ikasketetan aurrera egiteko aukerak baloratuko dituzte.

3.– Arlo bakoitzeko irakasleak, erreferentzia nagusitzat ebaluazio-irizpideak hartuz, ikasleak aurreikusitako gaitasunak eskuratu dituen erabakiko du, ikasturtearen bukaeran.

4.– Irakasleek ikasleen ikaskuntzak eta irakaskuntza-prozesuak ebaluatuko dituzte.

5.– Tutoreak, kurtso bakoitzean aurreikusitako ebaluazio-saio bakoitzaren ondoren edo zirkunstantziek horrela eskatzen badute, ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren emaitza agertuko duen txosten bat egingo du, eta ikasleei, edo adin txikikoak diren ikasleen kasuan, gurasoei edo legezko tutoreei entregatuko zaiena. Txosten horrek arlo bakoitzean lortutako kalifikazioak, eskola-errendimenduari eta gizartean eta hezkuntzan integrazeari buruzko informazioa eta aurreikusten diren laguntza- eta errefortzu-neurriak agertuko ditu.

6.– Ikasleek izango dute, ikasturte bakoitzeko ekainaren 30a baino lehenago, gainditu ez dituzten arloetan aparteko proba bat egiteko aukera.

7.– Batxilergoko arloen ebaluazio-emaitzak zerotik hamarrera bitarteko kalifikazio numerikoen bidez, hamartarrik gabe, adieraziko dira eta bostetik beherako kalifikazioak negatibotzat joko dira. Ikasleak aparteko probetara aurkezten ez badira, ez aurkeztua (EA) jarriko da.



Kalifikazioak Notak eta Faltak aplikazio informatikoan sartuko dira eta hortik automatikoki joango dira Espediente Akademiko aplikaziora. Kalifikazioaren karga ondo bukatu ondoren, zuzendaritzek ziurtagiriak edo Historia Akademikoak sortu ahal izango dute “Ziurtagi Digitalak” aplikazioaren bidez.

Ondorengo taulan adierazten dira “Notak eta Faltak” aplikazioan sar daitezkeen baleko kalifikazioak eta hauek nola islatuko diren Aktetan eta Espediente Akademikoetan:

| Kalifikazioak | Akta eta Espediente | Adierazpena |
|-----------------|---------------------|---|
| 0-10 | 0-10 | |
| Baliozkotua | KB | |
| Salbuetsita | SA | |
| Kalifikatu gabe | -- | Pendientearen parekoa da. 1.ko irakasgaia pendiente edukiz, 2. Irakasgaien ebaluatuak izan dira. Hau ezin da kalifikatu |
| Ez ebaluatua | EE | EZ aurkeztua |

8.- Batxilergoaren batez besteko nota arlo bakoitzean lortutako kalifikazio numerikoen batez besteko aritmetikoa izango da, ehungarren hurbilenera eta, distantziakidetasunaren kasuan, gorenera borobilduz. Ez aurkeztua (EA) zeroren kalifikazio numerikoa izango da, arlo bererako ohiko proban lortutako kalifikazio numeriko bat dagoen kasuetan izan ezik. Orduan kalifikazio hori hartuko da kontuan.

9.- Batxilergoaren bukaeran errendimendu akademiko bikaina izan duten ikasleei emango zaie ohorezko matrikula eta, eginbide espezifikoen bidez, jasota agertuko da Batxilergoaren (1. eta 2.) batez besteko nota bederatzi puntukoa edo bederatzi baino altuagoa duten ikasleen espedientearen eta historial akademikoaren oharren atalean. Ohorezko matrikula emateko muga bigarren kurtsoan matrikulatutako ikasleen %5 izango da. Berdinketaren kasuan, ikastetxeak erabakiko du nori eman ohorezko matrikula, beti ere irizpide objektiboak erabiliz.

3.- BESTE KURTSO BATERA IGAROTZEA

1.- Hiru arlo edo gehiago gaintitzen ez dutenek derrigorrean errepikatu beharko dute lehen kurtso osoa.

2.– Batxilergoko lehen kurtsoetik bigarreneira igarotzeko, lehenengo mailako irakasgai guztiak gaintuta izan beharko dituzte ikasleek eta, guztiak gaintitu ezean, bi arlotan, gehienez ere, izango dute ebaluazio negatiboa. Edonola ere, bigarren kurtsoan matrikulatu beharko dute lehenengoan gaintitu ez duten irakasgaietan, edo, hala balegokio, egin eta gaintitu ez dituzten irakasgaik ordezkatzan dituzten beste irakasgai batzuetan. Gaintitu gabeko arloak berreskuratu eta ebaluatzeko jarduerak antolatu beharko dituzte ikastetxeek.

Atal honen ondorioetarako, ikasleak, gutxienez, eman behar dituen arloak besterik ez dira konputatuko.

Ikasleek behin bakarrik errepikatu ahal izango dute Batxilergoko kurtso bakoitza eta, salbuespen gisa, kurtsoetako bat bigarren aldiz errepikatu ahal izango dute, irakasle-taldeak alde zuzenetik aldeko txostena eman ondoren.



3.- Batxilergoko lehenengoko mailako irakasgai guztiak gainditu ostean bigarren maila errepikatzen duen ikasle orok bi aukera izango ditu:

- Aukeratzen duen Batxilergo berriko modalitateetik titulua lortzeko, bigarren mailan gainditzeke dituen irakasgaietan matrikulatu ahal izango da, gaindituta dituen irakasgaiak berriro egin beharrik gabe.
- Ikasturte osoa errepikatu.

Titulua lortu ahal izateko gainditu behar ditu irakasgai komunak, titulua lortuko duen modalitateko hiru irakasgaiak eta bigarren mailako bi irakasgai espezifikokoak.

4.- Batxilergoko bigarren mailako irakasgaiak, hurrenkera dagokienak, egin ahal izango dira baldin eta lotura duten aurretikoak eginda badaude; edo irakasgairi atxikitzen zaion mintegi didaktikoak, dagokion mailako froga eginez, egiaztatzen badu ikasleak delako irakasgaia arrakastaz egiteko besteko ezagutzak dituela. Edozelan ere, titulua lortzeko, *Titulazioa* atalean ezartzen diren baldintzak bete beharko dira.

4.- TITULAZIOA

1.- Modalitate batetik titulua lortzeko, modalitate guztietan komunak diren irakasgaiak gainditu beharko dira, eta, gutxienez, titulua lortuko duen modalitateko sei irakasgai (3 lehenengo mailakoak eta hiru bigarrenengoak), eta baita lau berariazko irakasgai (bi lehenengoko mailakoak eta bi bigarrenengoak).

2.- Helduen batxilergoa bukatzen dutenek (Gauzez nahiz urrutikoa), Gorputz heziketaren salbuespena izango dute eta maila bakoitzeko materia berariazko bat bakarrik gainditu beharko dute, gainontzeko ikasleriari exijitzen zaizkien bi gaien ordez.

5.- MODALITATEA ALDATZEA

1. Batxilergoko lehen kurtsoko hiru irakasgai edo gehiago gainditzen ez duten ikasleek izango dute egindakoa ez den beste modalitate batean matrikulatzeko aukera. Kasu horretan lehen kurtso osoa errepikatuko dute. Utzitako modalitateko irakasgaiak ez dira hurrengo kurtsoa igarotzeko orduan, ezta batez besteko notarako eta titulaziorako ere, kontuan hartuko.

2. Bigarren kurtsoa igarotzen diren ikasleek ere izango dute kurtso horretan modalitate desberdin batean matrikulatzeko aukera. Dena den, ondorengo alderdiak hartu beharko dira kontuan:

- Automatikoki gainditu gabeko irakasgai gisa agertuko dira titulua modalitate berrian lortzeko beharrezkoak diren eta ikasleak eman eta gainditu ez dituen lehen kurtsoko irakasgaiak.
- Ikasleak lehen kurtsoan eman behar dituen berariazko bi irakasgaietako, gutxienez, bat gainditu ez badu, irakasgai horren ordez utzitako modalitatean gainditu dituen arloetakoren bat emateko aukera izango du.
- Titulu berria lortzeko beharrezkoak ez diren utzitako modalitateko gainontzeko arloak automatikoki baliorik gabe geratuko dira.

3. Ondorioz: **titulua modalitate batean lortzeko, ikasle orok modalitate guztietako irakasgai komun guztiak, titulua lortzen duen modalitateko sei arlo, gutxienez (lehenengoko eta bigarrenengo hiruna), eta lau berariazko irakasgai (lehenengo eta bigarrenengo bina) gainditu beharko ditu.**

6. IBILBIDEA ALDATZEA HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK MODALITATEAN



1. Batxilergoko lehen kurtsoko hiru arlo edo gehiago gainditzen ez dituzten eta, beraz, errepikatu behar duten ikasleek izango dute ibilbidea aldatzeko aukera Humanitateak eta Gizarte Zientziak modalitatean, ikasturte osoa errepikatu beharko baitute.
2. Batxilergoko bigarren kurtsora pasatzen diren ikasleen kasuan, ondorengo puntuak hartu beharko dira kontuan:
 - Humanitateen ibilbidearen ordez Gizarte Zientzia egin nahi duen ikasleak Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematikak I izango du falta zaion lehen kurtsoko irakasgaia, betiere berariazko irakasgaien barruan egin eta gainditu ez badu.
 - Gizarte Zientzien ibilbidearen ordez Humanitateena egin nahi duen ikasleak Latina I izango du falta zaion lehen kurtsoko irakasgaia, betiere berariazko irakasgaien barruan egin eta gainditu ez badu.
 - Ikasleak gutxienez egin behar duen lehen kurtsoko berariazko bi irakasgaietako bat gainditu ez badu, horren ordez utzitako ibilbideko irakasgaia, gaindituta badu, edo modalitateko irakasgaietako bat egin ahal izango du, betiere derrigorrean egin behar dituen biak ez ezik, talde horretako beste arloren bat ere gainditu badu.

7 HELDUENTZAKO BATXILERGOA (GAUEKO ETA URRUTIKO ERREGIMENA) 66/2009 DEKRETUAN ARAUTUTAKO BATXILERGOTIK BATXILERGO BERRIRA IGAROTZEA.

Ondorengo irizpideak jarraituko dira:

- 1.- Batxiler-titulua modalitate batean lortzeko, ikasle orok modalitate guztietako irakasgai komun guztiak, eta, gutxienez, titulua lortzen den modalitateko 6 irakasgai (hiru lehengoko mailakoak eta hiru bigarrenekoak), eta baita lau berariazko irakasgai (bi lehengoko mailakoak eta bi bigarrenekoak)
- 2.- Atzerriko hezkuntza-sistemetatik datozen eta Batxilergoko lehen kurtsora baliozkotzen zaien ikasleak aukeratzen duten modalitateko bigarren kurtsora sartuko dira eta, bigarren kurtsoko II mailako irakasgaiak egin ahal izateko, ez dituzte I mailako irakasgaiak gainditu beharko.
- 3.- 66/2009 dekretuaren bidez araututako Batxilergoko lehen kurtsoko irakasgai guztiak gainditu dituzten ikasleek Batxilergo berriko lehen kurtsoko osoa gaindituta izango dute. Kasu honetan irakasgai komunak, titulua lortzen duen modalitateko hiru irakasgaiak eta bigarren kurtsoko berariazko bi irakasgaiak gainditu beharko dituzte.
- 4.- 66/2009 dekretuaren bidez araututako Batxilergoko lehen eta bigarren kurtsoko irakasgai guztiak, Filosofiaren Historia izan ezik, gainditu dituzten ikasleek Batxilergoko berrian modalitatean titulua lortzeko falta zaizkien bigarren kurtsoko irakasgaietan matrikulatu beharko dute, izen berekoak ez badira edo gainditu dituztenekin bat ez badatoz. Filosofiaren Historia arloa gainditu ez bada, ez du ondorioz izango, ikaslea Humanitateak eta Gizarte Zientziak modalitate berri hartan matrikulatzen ez bada.
- 5.- Batxiler-titulua lortzen ez duten gaueko edo urruneko erregimeneko ikasleak gainditu gabeko Batxilergo berriko irakasgaietan matrikulatuko dira. 66/2009 dekretuaren bidez araututako Batxilergoan gainditutako arlo guztiak, izen berekoak badira edo Batxilergo berriarekin bat badatoz, gainditutzat joko dira. 66/2009 dekretuaren bidez araututako Batxilergoko arloak, Batxilergo berriaren titulua lortzeko beharrezkoak ez badira, baliorik gabe geratuko dira ondorio guztietarako.



6.- Batxilergoko bigarrena egiten duten ikasleak ezin izango dira 1. mailako irakasgaietan matrikulatu, lehen kurtsoko gaingitu gabekoak ez badituzte. I. mailako irakasgaia gaingitu arte ezin izango da II. mailako horren baliokidea ohiko edo aparteko aktan kalifikatu.



II ERANSKINA

BATXILERGOKO ARLOAK ETA MUSIKA IRAKASKUNTZA PROFESIONALETAKO IRAKASGAIAK
BALIOZKOTZEA

| Baliozkotzen den Batxilergoko arloa | Baliozkotu daitekeen irakasgaia |
|-------------------------------------|--|
| Musika-azterketa I | Harmoniako bigarren kurtsoa |
| Musika-azterketa II | Analisiko lehen kurtsoa, Konposizioaren Oinarrietako lehen kurtsoa edo Konposizioa eta Moldaketetako lehen kurtsoa |
| Musika eta Dantzaren Historia | Musikaren Historiako lehen eta bigarren kurtsoa |
| Musika-hizkuntza eta Praktika | Tresna Nagusiko edo Ahotseko hirugarren kurtsoa |

BATXILERGOKO ARLOAK ETA MUSIKA IRAKASKUNTZA PROFESIONALETAKO IRAKASGAIAK
BALIOZKOTZEA

| Baliozkotzen den Batxilergoko arloa | Baliozkotu daitekeen irakasgaia |
|-------------------------------------|--|
| Anatomia Aplikatua | Dantzari Aplikatutako Anatomico lehen eta bigarren kurtsoa |
| Musika eta Dantzaren Historia | Dantzaren Historiako lehen eta bigarren kurtsoa |
| Musika-hizkuntza eta Praktika | Musikako hirugarren kurtsoa |

BATXILERGOKO ARLOEN ARTEKO BALIOKIDETASUNA

| | |
|---------------------------------------|---|
| Ikus-entzunezko Kultura | Ikus-entzunezko Kultura I |
| Filosofia eta Herritartasuna | Filosofia |
| Atzerriko Hizkuntza I | Atzerriko Lehen Hizkuntza I |
| Atzerriko Hizkuntza II | Atzerriko Lehen Hizkuntza I |
| Lur eta Ingurumen Zientziak | Lur eta Ingurumen Zientziak |
| Mundu Garaikiderako Zientziak | Kultura Zientifikoa |
| Informazio eta Komunikazio Teknologia | Informazio eta Komunikazio Teknologia I |

**BATXILERGOKO ARLOEN ARTEKO HURRENKERA**

| Batxilergoko 1. kurtsoa | Batxilergoko 2. kurtsoa |
|---|--|
| Euskara eta Literatura I | Euskara eta Literatura II |
| Gaztelania eta Literatura I | Gaztelania eta Literatura II |
| Matematika I | Matematika II |
| Atzerriko Lehen Hizkuntza I | Atzerriko Lehen Hizkuntza II |
| Marrazketa Teknikoa I | Marrazketa Teknikoa II |
| Latina I | Latina II |
| Greziara I | Greziara II |
| Gizarte Zientziei Aplikaturako Matematika I | Gizarte Zientziei Aplikaturako Matematika II |
| Artearen Oinarriak I | Artearen Oinarriak II |
| Ikus-entzunezko Kultura I | Ikus-entzunezko Kultura II |
| Musika-azterketa I | Musika-azterketa II |
| Marrazketa Artistikoa I | Marrazketa Artistikoa II |
| Atzerriko Bigarren Hizkuntza I | Atzerriko Bigarren Hizkuntza II |
| Industria Teknologia I | Industria Teknologia II |
| Informazio eta Komunikazio Teknologia I | Informazio eta Komunikazio Teknologia II |
| Fisika eta Kimika | Fisika / Kimika |
| Biologia eta Geologia | Biologia / Geologia |